

15. HEGO AMERIKAKO ERREALISMO MAGIKOA



Errealismo Magikoaz mintzo garenean, Hego Amerikan, 40ko hamarkadan, Europako errealismo kontzeptua gainditu nahian sortzen den norabide berriari egiten diogu erreferentzia. Egileon helburu nagusia ez da euren lurraldeetako errealitatearen testigantza zehatza egitea, ezta hango bidegabekeriak salatzea ere, **euren errealitatea poetikoki interpretatzea** baizik.

Munduaren konplexutasuna adierazi nahi dute beren testuetan, eta horretarako, inguruan dugun **errealitateaz gain, ametsez, mitoez edo fantasiez baliatzen dira.**

Naturak edo gertakari ezohikoek menderatzen duten mundu hau testuratzeko, **kontamolde narratibo berritzaileenak** eta **gatzelania aberats eta landua** erabiltzen dute.

Errealismo magikoaren ezaugarri batzuk

- Elementu magiko-fantastikoak azaltzen dira, pertsonaiek aintzat eta normaltzat jotzen dituztenak; bestalde, elementu horien azalpenik ez da ematen
- Kontalari aniztasuna erabiltzen da, lehen, bigarren eta hirugarren pertsonak nahasiz, ideia berari ikuspuntu batzuk eskaintzearen eta testua konplexutasun handiagoarekin hornitzeko
- Denboraren pertzepzioa ziklikoa da, ez lineala; bestalde, denbora distortsionatu egiten da
- Heriotza gai garrantzitsua da; pertsonaiak hil egin daitezke gero berriz ere bizitzara itzultzeko
- Gertaleku gehienak Ameriketako txirotasun eta bazterketa sozialaren mailarik gogorrenetan izaten dira; bazterleku horietan kontzepzio magikoa edo mitikoa oraindik ere "bizitza erreala" da
- Gertakariak errealak dira, baina konnotazio fantastikoren bat izaten dute, batzuek ez baitute azalpenik edota gertatzen oso zailak baitira

Oro har, Errealismo Magikoaren ildotik egiten den narraziogintzaren berrikuntzei erreferentzia egiten diegunean **bi belaunaldi** aipatu ohi ditugu: 40koa eta 60koa.

➤ 40ko belaunaldia


Hauen artean, gogora dezagun **Jorge Luis Borges** (1899-1986) idazle argentinarra. Kultura zabaleko gizona, egile askok miretsitako maisua eta poesia liburu, saiakera (*Betikotasunaren historia*, 1936; *Beste ikerketak*, 1952) nahiz ipuin liburu zoragarriak idatzi zituen (Fikzioak, 1944; *El aleph*, 1949 eta *Hareazko liburua*, 1975). Borges en estiloa egilearen kultura zabalaz ziprztintzen da eta benetako nahiz fikziozko erreferentziekin hornitzen.



Jorge Luis Borges


Itxuraz hotza den idazmoldean, ironia eta trebezia handiz eramaten gaitu hausnarketa filosofikoa eta existentziala bere egiten dituen unibertsoa. Bere gai errepikatuen artean, errealitatea-fikzioa arteko mugak, kausalitate magikoa, kontzientziaren misterioa, munduaren izaera korapilatsua edo denboraren kontzeptzio zirkularra aipa genitzake.

Miguel Angel Asturias (1899-1974) guatemaldarrak bere eleberri garrantzitsuenean, *Presidente jauna* (1946), diktadore despotiko eta absurdo samar bat aurkezten digu, estilo aberats eta indartsu batean, ameskaiztoko giro harrigarria sortuz. Maien kulturari buruz egindako ikerketa ugariak *Guatemalako leiendak* (1930) eta *Artozko gizonak* (1949) liburuetan islatu ziren, eta *Papa berdea* (1954) nobela da «trilogia bananeroa» deitu zionaren barruan garrantzitsuena. 1967an Nobel saria eman zioten.




Alejo Carpentier (1904-1980) kubatarra dugu Errealismo Magikoaren lehenengoetako teorikoa eta berari zor dizkiogu Antilletan kokatutako *Mundu honetako erresuma* (1949) eta *Argien mendea* (1962) eleberri historikoak. Bere estiloa barrokoa da, eta *Pauso galduak* (1953) eleberrian oihanean zehar egindako bidaia baten istorioa kontatu zigun, oraingoan ere, ukitu sinboliko handiko mundua eraikiz. Aurrez aurre jarri zituen Latinamerikako ezaugarri kontsideratzen den miragarritasuna eta Mendebaldeko zibilizazio tekniko-arrazionalista. Bere lanik ospetsuena *Argien mendea* (1962) nobela dugu, estilo barrokoan idatzia eta kontaketa egitura konplexua duena. Eleberria kronika historiko bat da, Karibearen kokatua eta Frantziako Iraultzak sortu zituen kontraesanen eta indarkeriaren berri ematen duena. Egilearen beste lan batzuk *Ecué-Yamba-O* (1933), Kubako beltzen mundua modu abangoardistan kontatzen duena, *Esetsaldia* (1956), Bautistaren erregimenaren itokeria azalduz, eta *Kontzertu barrokoa* (1975) dira.

Juan Rulfo (1918-1986) mexikarrak Errealismo Magikoaren ildoan idatzitako bi maisulan argitaratu zituen: *Lautada sutan* (1953) ipuin bilduma eta *Pedro Paramo* (1955) eleberria. *Lautada sutan* liburuak 15 ipuin biltzen ditu eta paisaia gogorak, lur idor-antzuak eta miseria gorrienean bizi diren pertsonaiak dira nagusi. Fantasmagoriako mundu krudel eta txundigarria. *Pedro Paramo* nobelan, berriz, gizon batek bere aitaren herrira egiten duen bidaia harrigarria kontatzen da, errealitatearen eta irudipenaren arteko mugak apurtzen diren istorioa. Lehena eta oraina etengabe nahasten diren istorio honetan, protagonistak Comala herriaren historia jakin ahal izango du, eta bereziki bere aita Pedro Paramorena, hil ostean beste hilekin izango dituen elkarrizketei esker. Rulforen lana garai eta paisaia jakin bati lotua egon arren, gai eta kezka unibertsoaren ingurukoa dugu: bakardadea, etsipena, eta heriotzaren presentzia etengabea. Hori guztia kontamolde berriekin adierazten ahalegindu zen: ikuspuntu anitz erabiliz, barne bakarriketak tartekatuz, kronologiaren linealtasuna apurtuz, hizkuntza xehe eta aldi berean landua erabiliz... Bere maisuetako baten, W. Faulknerren, oihartzunak dakarzkigu. Edozein alderditatik begiratuta ere, Rulforen narratibagintzaren ezohikotasunak areagotu egiten du bere erakarmen ahalmena.



Augusto Roa Bastos (1918) paraguaiarrak osatuko du 40ko belaunaldiko idazle aipagarrienen zerrenda. Urte askotan erbestean bizi izandakoa, *Ni, Gorenekoa* (1974) eleberria da bere lanik aipagarriena, eta bertan, XIX. mende hasierako diktadore baten irudi beldurgarri eta asaldagarria eskaini zigon.


➤ 60 ko belaunaldia



60ko hamarkadan idaztalde gazte berri batek Hego Amerikako literaturari inoiz izan duen ospe handiena eta arrakastarako bultzada ematen dio. "**Boom-aren belaunaldia**" deitu izan zaion honetako egile ezagunek (G. García Márquez, J. Cortázar, M. Vargas Llosa, C. Fuentes...) izugarritzko entzutea lortuko dute urte gutxitan. Europa aldean, eta bereziki, Espainian, jakin-min eta miresmen handia eragingo dute eta idazle saritu, aipatu, saldu eta goretsiak izatera iritsiko dira. Ezbairik gabe, 60ko hamarkadatik hona lortu du Errealismo Magikoaren zolan idatzitako literatura honek bere harrerarik arrakastatsuen.

Julio Cortázar (1914-1984) Bruselan jaiotako argentinarra, idazle ez ezik, maisu, unibertitate irakasle eta itzultzaile ere izan zen denboraldi batean (besteren artean, E.A. Poe eta M. Yourcenar itzuli zituen). 1951n Perón-en erregimenarekin zituen desadostasunengatik, Parisera erbesteratu zen eta hantxe bizi izan zen hil artean. Alabaina, Europan bizitzeak ez zion Hego Amerikarekiko konpromiso politikoa eragotzi eta, bere jarrera ezkertiarrei irmo eutsiz, Castroren eta Sandinoren iraultzen alde egon zen.

1951n argitaratu zuen bere lehenengo liburua: *Bestiario*, Borges maisuaren eragin nabarmena zuena eta elementu irrazionalak betetako unibertsoa iradoki ziguna. Hala ere, bere ondorengo ipuin liburuetan bezala (ad.: *Jolasaren amaiera*, 1956; *Su guztiak, sua*, 1966; *Arma sekretuak*, 1966), elementu irrazionalak eta fantasia eguneroko bizitzako egoera arruntetatik sortzen ziren liburu hartan. Ukitu surrealista nabarmena dute, halaber, tonu umoretsu eta ironikoan idatzitako *Kronopio eta famen historiak* (1962) liburuak eta *Oktaedroa* (1971) lanak. Edozein modutan, ez genuke Cortázarren ekarpen literarioa behar den bezala azpimarratuko, fantasia ulertzeko moduari, hizkuntzaren beraren erabilera oparo eta ñabarduraz betetako erantsiko ez bagenio. *Rayuela* (1963) eleberri esperimentalak ospe izugarria eman zion egileari. Hitzaurretik jakinarazten zaigun moduan, irakurleon esku dago nobela honen ordena erabakitzea, begien aurrean daukagun istorio zatikatuari nolabaiteko antolaketa ematea. Hiru zatitan banatuta dago *Rayuela*: lehenengoan, Rio de la Platako pertsonaia batzuek Parisen bizitzen dituzten gorabeherak kontatzen dira; bigarrean, Buenos Airesko herrian gertatutakoak dira kontagai, eta hirugarrenean testu mota desberdinen *collageak* barneratzen dira. *Collage* teknika izango da, era berean, ondorengo zenbait liburutan nagusi: *Muntatzeko ereduak* (1968), *Egunari ingurubira laurogei mundutan* (1967) eta *Azken ronda* (1969). Prosa eta poesia nahastuz, generoen arteko mugak ere apurtzen





ahalegindu zen Cortázar liburu horietan. Bere azken lanen artean, *Manuelen liburua* (1973) azpimarratuko genuke.

Mario Vargas Llosa (1936) peruarra dugu, "boom-eko" beste egile ezagun bat. Batxilergoa ikastetxe militar batean egin zuen, eta han bizi izandako giro matxista eta bortitza *Hiria eta zakurrak* (1962) eleberrian islatu zuen. Bere unibertsitate ikasketak amaitu ostean, Madril,artzelona, Paris eta Londresen bizi izan zen, hainbat lanbidetan arituz. Ideologikoki, hasieran ezkertiarra zen, geroago liberalismoaren aldekoa eta azken urteetan erabat eskuindarra (Peruko presidente hauteskundeetara aurkeztu zen eskuineko alderdi baten ordezkari gisara). Espainiako Erret Akademiakoa da eta beste batzuen artean, Cervantes saria lortu du. Nobelagile izateaz gain, saiolari aparta da Vargas Llosa, eta bere maisulanen artean Flauberten gorazarrez egindako *Orgia amaigabea: Flaubert eta "Madame Bovary"* (1975) da nabarmentzekoa. Narratibazko maisulanen artean, *Etxe berdea* (1966) aipatuz hasiko gara, prostituzio etxe baten inguruko istorioa kontatzen duen eleberria. Abentura, errealitatea, sineskeriak eta indigenen mitoak nahastuz, ahots eta ikuspuntu anitzez osatutako testua eskaini zigun egileak, Flaubert maisuaren ildotik, xehe-tasun ugariko eta objektibotasun handiko estiloa erabiliz. Geroago etorri zen *Zakurkumeak* (1967) Limako gazte burgesei buruzkoa, prosa arin baina era berean oparoan idatzitakoa. *Katedralean solasaldiak* (1971) Vargas Llosaren lanik handienetakoa dugu. Santiago Zavala protagonistak bere aitaren bizkarzainarekin Catedral tabernan dituen elkarrizketetan, egia izugarria begitantzen joango zaio. Kontrapuntuaren teknika, ikuspuntu aniztasuna, etengabeako flash-backak eta errealismo gogorra erabili zituen egileak lan honetan. *Pantaleon eta bisitatzaileak* (1973) eta *Izaba Julia eta izkribatzailea* (1977) nobelek, ordea, tonu umoretsu eta parodikoagoa dute, eta azkenak bereziki, Vargas Llosaren elementu autobiografiko asko barneratzen ditu.



Nork ez du inoiz entzun Macondo herriaz hitz egiten? Segur aski, Faulknerren Yoknapatawpha edo Rulforen Comalaren antzera, inongo geografia liburutan aurki ez daitekeen leku irudizko honek ezagutzen ditugun leku askok baino egiantzekotasun handiagoa du irakurle askorentzat. Eta bere sorkuntza **Gabriel García Márquez** (1928-) kolonbiarrari zor diogu, batez ere *Ehun urte bakardadean* (1967) eleberri ezagunari. 18 urterekin hasi zen kazetari lanetan eta Europara bidaiatu zuen, batez ere, Parisera, berriemate modura. Kazetaritzak garrantzi handia izango du bere idazmolde literarioan, ez bakarrik bere prosa ezaugarri berezietz hornitu duelako, baita bi alorrak nahastuz, erreportajearen eta eleberriaren arteko genero nahasketak egiteko aukera eman dielako baizik (ad. *Naufrago baten kontakizuna*, 1955; *Iragarritako heriotza baten kronika*, 1981; *Bahiketa baten berria*, 1996). *Iragarritako heriotza baten kronika* egitura sendoan antolatutako nobela zirkularra dugu. Ahozkoasunetik datozen hainbat teknika erabiliz, hilketa baten ingurukoak berritzen dira, puzzle baten modura osatuz doan istorio izugarri batean. 1961etik aurrera Mexiko etaartzelona artean bizi izan da García Márquez. 1982an Nobel Saria eman zioten.



hasiera Macondon kokatutako eleberrien zikloari. Bere gaixoak zaintzeko beharrezkoak

zaizkion baliabideak ez dituen mediku baten bakardadearen istorioa kontatzen du bertan García Márquezek. Faulkner maisuari jarraiki, ikuspuntu desberdinetatik aurkezten zaigu medikuaren suizidioarekin amaitzen den istorio hau. *Koronelari ez dio inork idazten* (1961) nobela ere, bakardade baten historia da, etsai politikoz inguratutako herri batean bizi den gerrako soldado ohi baten bakardadearena. *Ordu txarra* (1962) eta *Mamá Granderen hiletak* (1962) liburuetan, berriz, Macondo gogor eta bortitz bat begititzen zaigu, bigarrenean fantasia eta umoreak leundua. Alabaina, *Ehun urte bakardadean* (1967) eleberrian erdiesten du García Márquezek bere gailur literarioa, lehenagotik irudikatuz joan zaigun unibertso irudizkoa. Eleberri hau Macondoko biztanleen, batez ere Buendíatarren, saga mitiko-fantastikoa dela esan genezake. Familia honetako sei belaunaldi pasatzen zaizkigu kontakizunak bere gain hartzen dituen ehun urteetan, eta behiala paradisuko geografia izandakoa desolazioaren irudi bihurtzen da amaieran. Errealismo Magikoaren emaririk garrantzizkoenetakoa den eleberri honetan, iragana eta oraina, errealitatea eta fantasia, hilak eta biziak... nahastuz doan prosa erakargarrian. Geroago idatzi zituen *Patriarkaren udazkena* (1975) edo *Jenerala bere labirintoan* (1989), historiko-politikoagoak dira, nahiz eta egilearen ikuspuntu humanistari ihes egiten ez dioten.

POESIA

Ondorengo lerroetan aurkeztuko ditugun Hego Amerikako bi poeta handiak intimismoa baztertu eta gizakia zapaltzen duten injustiziak salatzen ahalegindu ziren. Beren lanetan, abangoardien ekarpenak eta kezka existentzialista eta sozialak uztartu zituzten, kalitate handiko poemak idatziz.



Jakina denez, **Pablo Neruda** (1904-1973) txiletarraren ospeak ez du mugarik. 1971n Nobel Saria lortu zuen poeta hau S. Allenderen laguna izan zen eta bere ideologia ezkertiarri tinko eutsi zion bizitza guztian. Modernismoaren ildotik idatzitako hastapenetako poema batzuen ondoren, 20 urterekin, *Amodiozko 20 poema eta kantu etsi bat* (1924) bikaina idatzi zuen. Irudi iradokitzaileen bidez eta tonu gizatiar eta hunkigarrian deskribatzen zaigu amodio-pasioa. *Bizitokia lurrean* (1935) poeman, munduaren eta bere buruaren irudi tristea ematen digu poetak, hizkuntza oso surrealista erabiliz. Denboraren iragateak eta heriotzak sortzen duten larritasuna, bakardadea, esperantzarik eza, indarkeria.... dira bertan azaltzen diren gaietako batzuk. Hizpide izango dugun azken liburua, *Kantu orokorra* (1950) da, 15.000 bertso lerroz osatutako poema erraldoia. Kontinente amerikarrari egindako himno honetan, elementu eta alderdi guztiak atzematen ahalegindu zen Neruda: natura, historia eta bere sufrimendutik ateratzeko justiziaren alde borrokatu behar den herri xehea.

César Vallejo (1893-1938) peruarra bazterketa eta erauzpen handia pairatu zituen, ez bakarrik mestizoa eta komunista izan zelako, baita konbentzionalismo ororen kontrako jarrerak defenditu zituelako ere. Espainiako Gerra Zibilean errepublikarren alde borrokatu zen eta miseriarik gorrienean hil zen Parisen. Vallejoren bilakaera poetikoak hainbat estetika eta mugimendu barneratu zituen. Hastapenetan, Modernismoaren ildoan ibili bazen (*Heraldo beltzak*, 1918), geroago, abangoardiek, batez ere Surrealismoak, liluratu zuten (*Trilce*, 1922). Amaiera aldera, poesia sozial eta gizatiarraren aldeko apustua egin zuen. *Espainia, urrundu ezazu nigandik kaliz hau* (1939) poeman, Gerra Zibilak eragindako mindura du kontagai.



Poema 20

Puedo escribir los versos más tristes esta noche.
Escribir, por ejemplo: "La noche esta estrellada,
y tiritan, azules, los astros, a lo lejos".

ARIKETA

1. Gaia: nola labur daiteke poemaren gai nagusia?
2. Zerk bultzatzen du poeta poema idaztera? Zelako sentimenduak azaleratzen ditu?
3. Zein lotura dago naturaren eta poetaren sentimenduen artean? Bila itzazu adibideak poeman bertan.
4. Berrirakur itzazu azken lau lerroak eta eman zeure interpretazioa.

